# 192. araua

# Iruñeko eta Nafarroako Erresumako errege-erreginen izenak

(Euskaltzaindiak 2020ko ekainaren 26an, Donostian, uztailaren 17an, Bilbon, eta irailaren 25ean, Bilbon, onartua)

## Sarrera

Pertsona-izenen gaia behin baino gehiagotan landu du Euskaltzaindiak, eta zenbait arautan eman ditu bere iritzi eta gomendioak. Errege eta erreginen izenen arloan, 66. araua da lehenengo erreferentzia (*Santutegiko izen ohikoenak*), errege-erreginen izen gehien-gehienak santu- eta santa-izenak izaten baitira. 1996an argitaratu zen arau hori, eta 2019an emendatu, eta hartan ezarri ziren ponte-izenak euskaraz emateko irizpide nagusiak. Honela dio arau horrek irizpideen atalaren hasieran:

Santuen euskal izenak finkatzeko orduan, euskararen eta euskaldunen hizkuntza-duintasuna gidari hartuta, beharrezkotzat jotzen da gure herriaren tradizio zahar eta propioa berreskuratzea, izen horiek, ahal den neurrian bederen, gaurko gizartean txertatu edo eta berpizteko.

Arau horretan, irizpideak zehaztu ondoren, izen-zerrenda bat eman zen; hartan ageri diren izenetariko asko errege eta erregina —edo errege-erreginen seme edo alaba— izan diren askoren ponte-izenak dira, hala nola *Ana, Filipe, Henrike, Joana, Karlos, Luis, Margarita, Teresa* eta abar.

Bestalde, 2017an, 186. araua argitaratu zuen Euskaltzaindiak (*Atzerriko pertsona-izenak. Grafia-irizpideak. Errege-erreginen eta kidekoen kasua. Euskaltzaindiaren gomendioa*). Han, argi zehaztuta dago zein den Euskaltzaindiaren gomendioa errege-erreginen izenen euskarazko idazkerari buruz:

Europako errege-erregina **historikoen** izenak, oro har, **euskal grafiara egokituta** idazten dira, santu-santen izenak egokitzen diren bezala eta gure inguruko hizkuntzetan ere ohitura den moduan. Adibidez, *Gilelmina I.a Herbehereetakoa* (jatorrizko izena: *Wilhelmina*; es, *Guillermina;* fr, *Wilhelmine*; en, *Wilhelmina*); *Filipe II.a Espainiakoa* (jatorrizko izena: *Felipe*; fr, *Philippe*; en, *Philip*); *Henrike IV.a Frantziakoa* (jatorrizko izena: *Henri*; es, *Enrique*; en, *Henry*).

186. arau horretan, bestalde, Europako errege-erreginen zerrenda xeheak ematen dira. Haien artean daude gure inguruko erresuma nagusi guztietako errege-erreginak, hala nola Aragoikoak, Frantziakoak, Gaztelakoak, Espainiakoak eta abar. Hala ere, Euskal Herriaren historian hain toki nabarmena izan zuten Iruñeko eta Nafarroako Erresumako errege-erreginen izenak ez dira arau horretan ageri, izen horiek bereiz eta xeheago landu eta plazaratu nahi baitzituen Euskaltzaindiak. Hutsune hori betetzera dator arau hau.

## Irizpideak

Gorago adierazi den moduan, bi irizpide nagusi daude:

1- Iruñeko eta Nafarroako Erresumako errege eta erreginen izenak, euskaraz, euskal grafiara egokituta idaztekoak dira. Hori da, bestalde, nazioarteko joera, eta gure bi auzo-erdara nagusietan ere —gaztelaniaz eta frantsesez— betetzen dena. Adibidez, gaztelaniaz *Juana I* eta *Sancho I* izendatzen direnak *Jeanne I^re^* eta *Sanche I^er^* dira frantsesez.

2- Errege-erreginen ponte-izenak santutegiko izenen arauan ageri diren izen berak direnean, arau horretakoak erabili behar dira. Adibidez, **Katalina** (gaztelaniaz, *Catalina*; frantsesez, *Catherine*) edo **Henrike** (gaztelaniaz, *Enrique*; frantsesez, *Henri*). Arana-Eleizalderen izendegian agertzen diren izenak euskal izenak badira ere, ez dira erabiltzen errege-erreginak eta kidekoak izendatzeko (adibidez, *Miren* edo *Koldo* ez dira erabiltzen; haien ordez, 66. arauko **Maria** eta **Luis** erabili behar dira).

3- Errege-erreginen ponte-izenak 66. arauko zerrendan ageri ez badira, Onomastika batzordeak landutako *Euskal izendegia* lanean ageri diren irizpideak eta hobespenak erabili dira. Adibidez: **Eneko** (erdaraz, *Íñigo*), **Tota** (erdaraz, *Toda*), **Zuria** (gaztelaniaz, *Blanca*; frantsesez, *Blanche*), **Antsa** (erdaraz, *Sancha*).

4- Identifikatzaile patronimikoak

Ezinbestean aipatu beharrekoa da, gai honi dagokionez, Patxi Salaberriren *Euskal deituratategia: patronimia* lana (UEU, 2003). Honela dio egileak:

Hortaz, eta laburtuz, *-e(t)z*, *-i(t)z* eta *-(t)z* dira historikoki atzizki patronimikoaren aldaerak gure artean, eta goitiago erran bezala *-(t)z* da hirurek amankomunean dutena, nolabait ere atzizkiaren muina dei dezakeguna (…) Gurean, erran gisa,

ugariak ziren bukaeran afrikaria zuten identifikatzaileak (Nafarroan eta Iparraldean), eta horregatik uste dugu eskubide osoa dugula hemengo patronimikoak, hauek deitura konposatu baten osagai direla edo ez, *-tz*-z arautzeko, gutxienez jatorriz —eta deitura bakoitzaren jatorria zein den jakitea usu lan gaitza dela ongi dakigu— Nafarroakoak edo Iparraldekoak direnean. Afrikaria egun espainoltasunaren adierazgarritzat hartzen diren deitura frankotan —edo hauen aitzindari direnetan— ere topatzen dugu: **Aznartz** (*Sancho Aznartz*); **Dietz** (*Roy Dietz, e Martin Dietz*; *Johan Dietz de Çuaçu*; *Lope Dietz de Gorritz luçea*); **Ferranditz** (*Garçia Ferranditz de Huart apres Bilaua*); **Gonzaletz** (*Teresa Gonçaletz de Baztan*) edo **Gonzalbetz** (*Johan Guonçaluetz*); **Lopetz** (*Garcia Lopetz*; *Sancho Lopetz*); **Martinetz** (*Johan Martijnetz de Merifuentes = Johan Martjnitz de Merifuentes*); **Muniotz** (*Urracha Muniotz = Urracha Munnioz*), **Munotz** (*Gutier Munotz*); **Ortitz** (*Petrus Ortitç de Deyerri*; *Sancho Ortitz*); **Peritz** (*Miguel Peritz*; *Martin Peritz d'Aldaua*; *Martin Peritz de Arbiçu*); **Remiretz** (*Maria Remiretz*); **Ruitz** (*Ferrant Ruytz*; *Martin Ruytz d'Alviçu*; *Sancho Ruitz*; *Marie Ruitz*); **Santxetz** (*Iohan Sanchetz*; *Pero Sanchetz d'Iguzquiça*); **Xemenitz**, **Txemenitz** (*Peyre Chemenitz de Uelçunçe; Miguel Xemenitz de Gaçolatz*)...

Bestalde, Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak *Euskal Deituren Izendegia* izeneko lana argitaratu zuen 1998an. Han, irizpideen atalean, zehaztu zen ezen lekukotasuna —toponimoa edo oikonimoa— segurua denean edo etimologia garbia denean, gaztelaniak ez dituen txistukari afrikatuak (bazituen, baina duela zenbait mende galdu zituen) berreskuratzekoak direla: *Eguzquiza → Eguzkitza*, *Icaza → Ikatza*, *Imaz → Imatz*, *Oscoz → Oskotz*, *Pagaza → Pagatza*, etab.

Eta Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak aztertu eta onartutako *Deituren izendegi*an, bestalde, *-itz* amaiera proposatu da aski sistematikoki jatorriz patronimikoak ziren gaur egungo abizenen euskal idazkera gisa. Adibidez: *Alvárez → Albaritz, Fernández → Fernanditz, Gómez → Gomitz, Jiménez → Ximenitz, López → Lopitz/Lopetz, Ramírez → Ramiritz*…

Horrenbestez, irizpide gisa, bide horri jarraitzea hobetsi da. Horregatik, *Eneko*tik *Enekoitz*, *Gartzia*tik *Gartzeitz*, *Ramiro*tik *Ramiritz*, *Aznar*etik *Aznaritz*… egin da. Salbuespena da *Antso*, tradizioan ez baita dokumentatu ***Antsoitz** (dena dela, *Lope filius **Anssi*** dokumentatu da Nafarroa Beherean 1189. urtean [Goihenetxe, E. (1966): *Onomastique du nord du Pays Basque (XIe-XVe siècle)*]) eta bai ugari *Santx(e)i(t)z, Sanoi(t)z* eta abar. Horregatik, *Antso*tik *Santxitz* egin da.

## Taularen azalpena

Ordena kronologikoan aurkezten dira errege-erreginen izenak, eta zer dinastiari dagozkion ere zehazten da. Hau da taulako zutabeen esanahia, ezkerretik eskuinera:

- Lehen zutabean, erregearen edo erreginaren (inoiz, erregeordea/erreginaordea ere zehaztu da) izena, dagokion ordinalarekin. Adibidez: **Joana I.a**. Ponte-izen horretako errege edo erregina bakarra izan denean, ordinala ez da zehaztu). Adibidez: **Katalina (ez baita Katalina II**.a izeneko erreginarik izan Nafarroan). Izengoitia baldin badu, jarraian adierazi da *izena + izengoitia* segida gisa, ordinalik gabe. Adibidez: **Henrike I.a** edo **Henrike Gizena.** Iruñeko Erresumako erregeek, ponte-izenaz gainera, badute patronimikoa ere. Adibidez: **Antso Ramiritz**.

- Bigarren zutabean, bizialdia ageri da parentesi artean eta, azpian, erreinaldia (urte-bitartea).

- Hirugarren zutabean, errege edo erregina horrek izandako ezkontide(ar)en izena(k) ematen d(ir)a.

- Laugarren zutabean, haren seme-alaben izenak. Seme edo alaba horietakoren bat Iruñeko edo Nafarroako erregetzara iritsi bazen, letra lodiz nabarmenduta ageri da. Seme-alaba sasikoen izenak, oro har, ez dira ematen.

- Hurrengo hiru zutabeetan, hurrenez hurren, errege edo erregina horren gaztelaniazko, frantsesezko eta ingelesezko izenak ageri dira.

# Iruñeko eta Nafarroako Erresumako errege-erreginak ordena kronologikoan

| Euskara | | (Bizialdia)<br>**Erreinaldia** | **Ezkontidea(k)** | **Seme-alabak** | **Gaztelania** | **Frantsesa** | **Ingelesa** |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **IRUÑEKO ERRESUMA** | | | | | | | |
| **Arista etxea / aristatarrak**<br>**(824-905)** | | | | | | | |
| **01** | **Eneko Enekoitz** edo **Eneko Arista** | (?-851/852)<br>**824-851/852** | | • Asona<br>• **Gartzia Enekoitz**<br>• Galindo<br>• - (?) | **Íñigo Arista / Íñigo Íñiguez** | **Iñigo Arista** | **Íñigo Arista** |
| **02** | **Gartzia Enekoitz** edo **Gartzia I.a Enekoitz**[1] | (ca. 810-882)<br>**851/852-882** | Urraka | • **Orti Gartzeitz**<br>• Oneka<br>• Antso Gartzeitz<br>---<br>• sasikoa(k) | **García I Íñiguez** | **García Íñiguez / García Ier** | **García Íñiguez / García I** |
| **03** | **Orti Gartzeitz** edo **Orti Begibakarra** edo **Orti Monjea** | (ca. 826-922)<br>**882-905** | Oria | • Eneko<br>• Aznar<br>• Belasko<br>• Lope<br>• Oneka | **Fortún Garcés el Tuerto / el Monje** | **Fortún Garcés le Borgne / le Moine** | **Fortún Garcés the One-eyed / the Monk** |
| **Ximeno etxea / ximenotarrak**<br>**(905-1076)** | | | | | | | |

[1] *Gartzia Enekoitz* (852-882) benetan errege izan bazen (eta horretan iturri guztiak ez datoz bat) *Gartzia I.a* izango zen, eta *Gartzia Santxitz*, orduan, *Gartzia II.a*. Eta *Gartzia Enekoitz* benetan errege izan ez bazen, *Gartzia Santxitz* erregea, orduan, *Gartzia I.a* izango zen.

| Euskara | | (Bizialdia)<br>**Erreinaldia** | **Ezkontidea(k)** | **Seme-alabak** | **Gaztelania** | **Frantsesa** | **Ingelesa** |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **04** | **Antso I.a Gartzeitz** | (ca. 860-925)<br>**905-925** | Tota Aznaritz (Orti Gartzeitz erregearen Oneka alabaren alaba) | • Urraka<br>• Oneka<br>• Antsa<br>• Beraskita<br>• Munia<br>• Orbita<br>• **Gartzia I.a Santxitz**<br>---<br>• sasikoa(k) | **Sancho I Garcés** | **Sanche I$^{er}$ Garcés** | **Sancho I Garcés** |
| **05** | **Ximeno Gartzeitz**<br>(ERREGEORDEA)<br>(Antso I.a Gartzeitz erregearen anaia) | **925-931**<br>(erregeordetzaldia) | | | **Jimeno Garcés** | **Jimeno Garcés** | **Jimeno Garcés** |
| **06** | **Gartzia I.a Santxitz** edo **Gartzia II.a Santxitz**[2] | (ca. 919-970)<br>**925-970** | Andregoto<br>---<br>Teresa | • **Antso II.a Gartzeitz**<br>• Tota<br>• Urraka<br>----<br>• Ramiro<br>• Ximeno | **García Sánchez I** | **García Sánchez / García II** | **García I (or II) Sánchez** |
| **07** | **Antso II.a Gartzeitz** edo **Antso Abarka** | (ca. 938-994)<br>**970-994** | Urraka | • **Gartzia II.a Santxitz**<br>• Ramiro<br>• Ontzalu<br>• Abda | **Sancho Garcés II / Sancho Abarca** | **Sanche II de Navarre / Sanche Abarca** | **Sancho Garcés II** |

[2] *Gartzia Enekoitz* (852-882) benetan errege izan bazen (eta horretan iturri guztiak ez datoz bat) *Gartzia I.a* izango zen, eta *Gartzia Santxitz*, orduan, *Gartzia II.a*. Eta *Gartzia Enekoitz* benetan errege izan ez bazen, *Gartzia Santxitz* erregea, orduan, *Gartzia I.a* izango zen.

| Euskara | | (Bizialdia)<br>**Erreinaldia** | **Ezkontidea(k)** | **Seme-alabak** | **Gaztelania** | **Frantsesa** | **Ingelesa** |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **08** | **Gartzia III.a Santxitz** edo **Gartzia Dardartia** | (? - ca. 1000)<br>**994 - ca. 1000** | Ximena | • **Antso III.a Gartzeitz**<br>• Elbira<br>• Gartzia<br>• Urraka | **García Sánchez II / García Sánchez el Temblón** | **García Sánchez le Tembleur / García III** | **García Sánchez II (or III) / García Sánchez the Trembler** |
| **09** | **Antso Ramiritz Viguerakoa** (ERREGEORDEA) | (? - ca. 1004)<br>**ca. 1000- ca. 1004**<br>(erregeordetzaldia) | | | **Sancho Ramírez de Viguera** | **Sancho Ramírez de Viguera** | **Sancho Ramírez of Viguera** |
| **10** | **Antso III.a Gartzeitz** edo **Antso Nagusia** | (ca. 994-1035)<br>**1000-1035** | Munia | • **Gartzia III.a Santxitz**<br>• Fernando<br>• Ximena<br>• Ontzalu<br>---<br>• sasikoa(Antso III.a Muniarekin ezkondu aurretikoa): **Ramiro I.a Aragoikoa** izatera iritsiko zen (ama: Antsa Oibarkoa) | **Sancho III Garcés / Sancho el Mayor** | **Sanche III Garcés / Sanche le Grand** | **Sancho Garcés III / Sancho the Great** |

| Euskara | | (Bizialdia) **Erreinaldia** | Ezkontidea(k) | Seme-alabak | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **11** | **Gartzia IV.a Santxitz** edo **Gartzia Naiarakoa** | (ca. 1012-1054) **1035-1054** | Estefania Foixkoa | • **Antso IV.a Gartzeitz**<br>• Urraka<br>• Hermesinda<br>• Ramiro<br>• Fernando<br>• Raimundo<br>• Ximena<br>• Mayor<br>---<br>• sasikoa(k) | **García Sánchez III / García el de Nájera** | **García IV Sánchez** | **García Sánchez III (or IV) / García of Nájera** |
| **12** | **Antso IV.a Gartzeitz** edo **Antso Peñalengoa** | (ca. 1039-1076) **1054-1076** | Plazentzia Normandiakoa | • Gartzia<br>---<br>• sasikoa(k) | **Sancho Garcés IV / Sancho el de Peñalén** | **Sanche IV Garcés** | **Sancho Garcés IV / Sancho of Peñalén** |
| **Aragoiko etxea / aragoiarrak**<br>**(1076-1134)**<br>**Antso IV.a Gartzeitz seme bizirik utzi gabe hilik, Ramiro I.a Aragoikoaren seme Antso Ramiritzekin iritsi zen Aragoiko etxea Iruñeko Erresumara** | | | | | | | |
| **13** | **Antso V.a Ramiritz**<br>(Aragoiko erregea izan zen 1063-1094 bitartean: **Antso Ramiritz Aragoikoa**) | (ca. 1042-1094) **1076-1094** | Elisabet Urgellgoa<br>---<br>Felizia Roucykoa | • **Petri I.a**<br>---<br>• Fernando<br>• **Alfontso I.a**<br>• Ramiro II.a (Aragoiko erregea) | **Sancho Ramírez / Sancho V de Pamplona (Sancho I de Aragón)** | **Sancho Ramirez / Sanche V de Pampelune (Sanche I^er^ d'Aragon)** | **Sancho Ramírez / Sancho V of Pamplona (Sancho I of Aragon)** |

| Euskara | | (Bizialdia)<br>**Erreinaldia** | Ezkontidea(k) | Seme-alabak | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **14** | **Petri I.a**<br>(Aragoiko erregea izan zen 1094-1104 bitartean: **Petri I.a Aragoikoa**) | (ca. 1068-1104)<br>**1094-1104** | Aines Akitaniakoa<br>---<br>Berta | • Petri<br>• Aines | **Pedro I** | **Pierre I^er^** | **Peter I** |
| **15** | **Alfontso I.a** edo **Alfontso Borrokalaria**<br>(Aragoiko erregea izan zen 1104-1134 bitartean: **Alfontso I.a Aragoikoa**) | (1073-1134)<br>**1104-1134** | Urraka Leongoa | • - | **Alfonso I / Alfonso el Batallador** | **Alphonse I^er^ le Batailleur / Alphonse le Batailleur** | **Alfonso I / Alfonso the Battler / Alfonso the Warrior** |
| **Nafar etxea (Ximeno dinastiaren bigarren aldia) / nafarrak**<br>**(1134-1234)** | | | | | | | |
| **16** | **Gartzia V.a Ramiritz** edo **Gartzia Berrezarlea** | (ca. 1112-1150)<br>**1134-1150** | Margarita L'Aigle-koa<br>---<br>Urraka Asturiarra | • **Antso VI.a**<br>• Zuria<br>• Margarita<br>---<br>• Antsa | **García Ramírez / García el Restaurador** | **García V / García le Restaurateur** | **García Ramírez** / **García the Restorer** |
| **NAFARROAKO ERRESUMA** | | | | | | | |
| **17** | **Antso VI.a Gartzeitz** edo **Antso Jakituna** | (1132-1194)<br>**1150-1194** | Antsa Gaztelakoa | • Berengela<br>• **Antso VII.a**<br>• Zuria<br>• Fernando<br>• Teresa<br>• Konstantza | **Sancho VI de Navarra / Sancho el Sabio** | **Sanche VI de Navarre/ Sanche le Sage** | **Sancho Garcés VI / Sancho the Wise** |
| **18** | **Antso VII.a** edo **Antso Azkarra** edo **Antso Entzerratua** | (ca. 1157-1234)<br>**1194-1234** | Konstantza Tolosakoa[3] | ---<br>• sasikoa(k)? | **Sancho VII / Sancho el Fuerte** | **Sanche VII / Sanche le Fort** | **Sancho VII / Sancho the Strong** |

[3] Tolosa Okzitania

| | Euskara | (Bizialdia) **Erreinaldia** | **Ezkontidea(k)** | **Seme-alabak** | **Gaztelania** | **Frantsesa** | **Ingelesa** |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Champagneko etxea / champagnetarrak<br>(1234-1307)<br>Tibalt Champagnekoa (Tibalt I.a) Nafarroako Antso Jakitunaren alaba Zuriarekin ezkonduta iritsi zen Champagneko etxea Nafarroako Erresumara** | | | | | | | |
| **19** | **Tibalt I.a** edo **Tibalt Trobadorea** edo **Tibalt Hilondokoa** | (1201-1253)<br>**1234-1253** | Gertrudis Dagsburg-ekoa<br>**---**<br>Aines Beaujeukoa<br>---<br>Margarita Borboikoa | • -<br>---<br>• Zuria<br>---<br>• Leonor<br>• Petri<br>• Margarita<br>• **Tibalt II.a**<br>• Beatriz<br>• **Henrike I.a**<br>---<br>• Sasikoa(k) | **Teobaldo I / Teobaldo el Trovador** | **Thibaut Ier / Thibaut le Posthume / Thibaut le Chansonnier** | **Theobald I / Theobald the Troubadour** / **Theobald the Posthumous** |
| **20** | **Tibalt II.a** edo **Tibalt Gaztea** | (ca. 1239-1270)<br>**1253-1270** | Elisabet Frantziakoa | • - | **Teobaldo II / Teobaldo el Joven** | **Thibaut II** | **Theobald II the Young** |
| **21** | **Henrike I.a** edo **Henrike Gizena** (Tibalt II.aren anaia) | (ca. 1244_1274)<br>**1270-1274** | Zuria Artoiskoa | • Tibalt<br>• **Joana I.a** | **Enrique I / Enrique el Gordo** | **Henri Ier / Henri le Gros** | **Henry I / Henry the Fat** |

| Euskara | | (Bizialdia) **Erreinaldia** | **Ezkontidea(k)** | **Seme-alabak** | **Gaztelania** | **Frantsesa** | **Ingelesa** |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **22** | **Joana I.a** | (1273-1305)<br>**1274-1305** | Filipe Ederra (**Filipe I.a**) | • **Luis I.a** (Luis X.a Frantziakoa)<br>• Margarita<br>• Zuria<br>• **Filipe II.a** (Filipe V.a Frantziakoa)<br>• Elisabet<br>• **Karlos I.a** (Karlos IV.a Frantziakoa)<br>• Roberto | **Juana I** | **Jeanne I$^{re}$** | **Joan I** |
| **Kapetar etxea / kapetarrak**<br>**(1284-1349)**<br>**Filipe Ederra (Filipe I.a) Nafarroako Joana I.arekin ezkonduta iritsi ziren kapetarrak Nafarroako Erresumara** | | | | | | | |
| **23** | **Filipe I.a** edo **Filipe Ederra**<br>(Frantziako erregea ere izan zen 1285-1314 bitartean: **Filipe IV.a Frantziakoa**) | (1268-1314)<br>**1284-1305**<br>(Nafarroako errege ezkontidea) | Joana I.a (Nafarroako erregina) | • **Luis I.a** (Luis X.a Frantziakoa)<br>• Margarita<br>• Zuria<br>• **Filipe II.a** (Filipe V.a Frantziakoa)<br>• Elisabet<br>• **Karlos I.a** (Karlos IV.a Frantziakoa)<br>• Roberto | **Felipe I / Felipe el Hermoso** | **Philippe I / Philippe le Bel** | **Philip I / Philip the Fair** |

| Euskara | | (Bizialdia)<br>**Erreinaldia** | **Ezkontidea(k)** | **Seme-alabak** | **Gaztelania** | **Frantsesa** | **Ingelesa** |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **24** | **Luis I.a** edo **Luis Setatia**<br>(Frantziako erregea ere izan zen 1314-1316 bitartean: **Luis X.a Frantziakoa**) | (1289-1316)<br>**1305-1316** | Margarita Burgundiakoa<br>---<br>Klementzia Hungariakoa | • **Joana II.a**<br>---<br>• **Joan I.a** | **Luis I / Luis el Obstinado** | **Louis I$^{er}$ / Louis le Hutin** | **Louis I / Luis the Quarreler/Headstrong/Stubborn** |
| **25** | **Joan I.a** edo **Joan Hilondokoa**<br>(Frantziako erregea ere izan zen 1316an: **Joan I.a Frantziakoa**) | (1316)<br>**1316** | - | • - | **Juan I / Juan el Póstumo** | **Jean I$^{er}$ / Jean le Posthume** | **John I / John the Posthumous** |
| **26** | **Filipe II.a** edo **Filipe Luzea**<br>(Frantziako erregea ere izan zen 1316-1322 bitartean: **Filipe V.a Frantziakoa**) | (ca. 1293-1322)<br>**1316-1322** | Joana Burgundiakoa | • Joana<br>• Margarita<br>• Elisabet<br>• Zuria<br>• Filipe | **Felipe II / Felipe el Largo** | **Philippe II / Philippe le Long** | **Philip II / Philip the Tall** |
| **27** | **Karlos I.a** edo **Karlos Burusoila** edo **Karlos Ederra**<br>(Frantziako erregea ere izan zen 1322-1328 bitartean: **Karlos IV.a Frantziakoa**) | (1294-1328)<br>**1322-1328** | Zuria Burgundiakoa<br>---<br>Maria Luxenburgokoa<br>---<br>Joana Évreuxkoa | • -<br>---<br>• Maria<br>---<br>• Maria<br>• Zuria | **Carlos I / Carlos el Hermoso/Calvo** | **Charles I$^{er}$ / Charles le Bel** | **Charles I / Charles the Fair/Bald** |
| **28** | **Joana II.a** | (1312-1349)<br>**1328-1349** | Filipe Évreuxkoa (**Filipe III.a**) | • Maria Évreuxkoa<br>• **Karlos II.a**<br>• Zuria<br>• Aines<br>• Filipe<br>• Joana Aines<br>• Luis | **Juana II** | **Jeanne II** | **Joan II** |

<table>
<tr><th colspan="2">Euskara</th><th>(Bizialdia)<br>Erreinaldia</th><th>Ezkontidea(k)</th><th>Seme-alabak</th><th>Gaztelania</th><th>Frantsesa</th><th>Ingelesa</th></tr>
<tr><td>29</td><td>Filipe III.a edo Filipe Noblea</td><td>(1306-1343)<br>1329-1343<br>(Nafarroako errege ezkontidea)</td><td>Joana II.a</td><td>• Maria Évreuxkoa<br>• Karlos II.a<br>• Zuria<br>• Aines<br>• Filipe<br>• Joana Aines<br>• Luis</td><td>Felipe III / Felipe de Évreux / Felipe el Noble</td><td>Philippe III / Philippe le Noble / Philippe le Sage</td><td>Philip III / Philip the Noble / Philip the Wise</td></tr>
<tr><td colspan="8">Évreuxko etxea / evreuxtarrak<br><br>(1349-1441)<br><br>Filipe Évreuxkoa (Filipe III.a) Nafarroako Joana II.arekin ezkonduta iritsi zen Évreuxko etxea Nafarroako Erresumara</td></tr>
<tr><td>30</td><td>Karlos II.a edo Karlos Gaiztoa</td><td>(1332-1387)<br>1349-1387</td><td>Joana Valoiskoa edo Joana Frantziakoa</td><td>• Maria<br>• Karlos III.a<br>• Bona<br>• Petri<br>• Filipe<br>• Joana<br>• Zuria<br>---<br>• sasikoak</td><td>Carlos II / Carlos el Malo</td><td>Charles II / Charles le Mauvais</td><td>Charles II / Charles the Bad</td></tr>
</table>

| Euskara | | (Bizialdia)<br>**Erreinaldia** | **Ezkontidea(k)** | **Seme-alabak** | **Gaztelania** | **Frantsesa** | **Ingelesa** |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **31** | **Karlos III.a edo Karlos Noblea** | (1361-1425)<br>**1387-1425** | Leonor Trastámarakoa | • Joana<br>• **Zuria I.a**<br>• Maria<br>• Margarita<br>• Beatriz<br>• Elisabet<br>• Karlos<br>• Luis<br>---<br>• sasikoak | **Carlos III / Carlos el Noble** | **Charles III / Charles le Noble** | **Charles III / Charles the Noble** |
| **32** | **Zuria I.a** | (1387-1441)<br>**1425-1441** | Martin Gaztea (Martin I.a Siziliakoa)<br>---<br>**Joan II.a** | • Martin<br>---<br>• **Karlos IV.a**<br>• Joana<br>• **Zuria II.a**<br>• **Leonor** | **Blanca I** | **Blanche $I^{re}$** | **Blanche I** |

## Trastámarako dinastia / trastamaratarrak

## (1425-1479)

## Joan Trastámarakoa (Joan II.a) Nafarroako Zuria I.arekin ezkonduta iritsi zen Trastámarako etxea Nafarroako Erresumara

| | Euskara | (Bizialdia)<br>**Erreinaldia** | **Ezkontidea(k)** | **Seme-alabak** | **Gaztelania** | **Frantsesa** | **Ingelesa** |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **33** | **Joan II.a** edo **Joan Usurpatzailea** edo **Joan Handia**<br>(Aragoiko erregea izan zen 1458-1479 bitartean: **Joan II.a Aragoikoa**) | (1398-1479)<br>**1425-1479**<br>(1425-1441 bitartean, errege ezkontidea; 1441-1479 bitartean, *de facto* erregea) | Zuria I.a<br>---<br>Joana Enríquez | • **Karlos IV.a**<br>• Joana<br>• **Zuria II.a**<br>• **Leonor**<br>---<br>• Leonor<br>• **Fernando I.a** (edo Fernando Faltsutzailea / Fernando II.a Aragoikoa / Fernando Katolikoa)<br>• Joana<br>---<br>• sasikoak | **Juan II / Juan el Grande / Juan el Usurpador** | **Jean II / Jean le Grand** | **John II / John the Great** |
| **34** | **Karlos IV.a**[4] edo **Karlos Vianako Printzea** | (1421-1461)<br>**1441-1461**<br>(erregegaia eskubidez, baina koroatu gabea) | Aines Cleveskoa | • -<br>---<br>• sasikoak | **Carlos IV / Carlos de Viana** | **Charles IV / Charles de Viane** | **Charles IV / Charles Prince of Viana** |
| **35** | **Zuria II.a** | (1424-1464)<br>**1461-1464**<br>(erreginagaia eskubidez, baina koroatu gabea) | Henrike IV.a Gaztelakoa | • - | **Blanca II** | **Blanche II** | **Blanche II** |

[4] Ez zen koroatua izan; horregatik, historiografian, Karlos IV.a Nafarroakoa beste bat da, gerokoa: Karlos IV.a Nafarroakoa eta I.a Gaztelakoa (1500-1558).

| | Euskara | (Bizialdia) **Erreinaldia** | Ezkontidea(k) | Seme-alabak | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **36** | **Leonor** | (1426-1479) **1479** | Gaston IV.a Foixkoa | • Gaston (**Frantzisko Febo** erregearen eta **Katalina** erreginaren aita)<br>• Petri<br>• Joan<br>• Maria<br>• Joana<br>• Margarita<br>• Katalina<br>• Elisabet<br>• Ane<br>• Leonor<br>• Jaime | **Leonor** | **Éléonore** | **Eleanor** |
| **Foixko etxea / foixtarrak (1479- 1513) Gaston IV.a Foixkoaren eta Leonor Nafarroakoaren biloba Frantzisko Febo Nafarroako errege bihurtu zenean iritsi zen Foixko etxea Nafarroako Erresumara** | | | | | | | |
| **37** | **Frantzisko Febo** | (1467-1483) **1479-1483** | | | **Francisco I de Foix / Francisco Febo** | **François Phébus** | **Francis Phoebus** |

| Euskara | | (Bizialdia) **Erreinaldia** | **Ezkontidea(k)** | **Seme-alabak** | **Gaztelania** | **Frantsesa** | **Ingelesa** |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **38** | **Katalina** | (1468-1517) **1483-1517** (1512-1517 bitartean, erbesteratua) | Joan III.a Albretekoa | • Ana<br>• Magdalena<br>• Katalina<br>• Joana<br>• Kiteria<br>• Andres Febo<br>• **Henrike II.a**<br>• Bonaventura<br>• Martin<br>• Frantzisko<br>• Karlos<br>• Elisabet | **Catalina** | **Catherine** | **Catherine** |
| | **Gaztelak eta Aragoik Nafarroa inbaditu eta konkistatu ondoren (1512), Fernando II.a Aragoiko erregeak "Aragoiko eta Nafarroako errege" izendatu zuen bere burua. 1513an, Nafarroako Gorteek Nafarroako errege izendatu zuten Fernando. 1515ean, Gaztelako Gorteen aurrean, Nafarroako Erresuma eman zien oinordetzan bere alaba Joana I.a Gaztelakoari eta bere biloba Karlosi; hala anexionatu zuen Gaztelak Nafarroa, eta habsburgotarrek Nafarroa beretu zuten. Dena dela, 1530ean, Karlos I.ak Nafarroa Beherea bazter utzi zuen, eta Henrike II.a Nafarroako erregeak berreskuratu zuen. Konkistaren ondoren, Gaztelako eta Espainiako errege-erreginak izan ziren Nafarroa Garaiko errege-erregina titularrak Nafarroako Erresuma ofizialki 1841ean desagertu zen arte[5]. Haien izenak araututa daude jada 186. arauan, Gaztelako eta Espainiako errege-erreginen zerrendan.** | | | | | | |
| **NAFARROAKO ERRESUMA (NAFARROA BEHEREAN)** | | | | | | | |

[5] 1841eko abuztuaren 16ko Legeak Nafarroako Erresuma abolitu zuen, eta *Nafarroako errege/erregina* izendapenak Espainiako Koroaren titulu gisa iraun du.

<table>
<tr><th colspan="2">Euskara</th><th>(Bizialdia)<br>Erreinaldia</th><th>Ezkontidea(k)</th><th>Seme-alabak</th><th>Gaztelania</th><th>Frantsesa</th><th>Ingelesa</th></tr>
<tr><td colspan="8">Albreteko etxea / albretarrak<br>(1517-1572, Nafarroa Beherean)<br>Joan III.a Albretekoa 1484an Katalinarekin ezkondu zenean iritsi zen Albreteko etxea Nafarroako Erresumara</td></tr>
<tr><td>39</td><td>Henrike II.a</td><td>(1503-1555)<br>1517-1530 bitartean, legezko erregea, baina ez benetakoa.<br>1530-1555 bitartean, Nafarroako erregea Nafarroa Beherean</td><td>Margarita Angulemakoa</td><td>• Joana III.a</td><td>Enrique II</td><td>Henri II</td><td>Henry II</td></tr>
<tr><td>40</td><td>Joana III.a edo Joana Albretekoa</td><td>(1528-1572)<br>1555-1572</td><td>Gilen Cleveskoa<br>---<br>Antonio Borboikoa</td><td>• -<br>---<br>• Henrike<br>• Henrike III.a (Henrike IV.a Frantziakoa)<br>• Luis Karlos<br>• Magdalena<br>• Katalina</td><td>Juana III / Juana de Albret</td><td>Jeanne III / Jeanne d'Albret</td><td>Jeanne III / Jeanne d'Albret</td></tr>
<tr><td colspan="8">Borboiko etxea / borboiak<br>(1572-1620, Nafarroa Beherean)<br>Antonio Borboikoa 1584an Joana III.arekin ezkondu zenean iritsi zen Borboiko etxea Nafarroako Erresumara</td></tr>
</table>

| | Euskara | (Bizialdia) **Erreinaldia** | **Ezkontidea(k)** | **Seme-alabak** | **Gaztelania** | **Frantsesa** | **Ingelesa** |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **41** | **Henrike III.a** edo **Henrike Bearnotarra**<br>(Frantziako errege izan zen 1589-1610 bitartean: **Henrike IV.a Frantziakoa**) | (1553-1610)<br>**1572-1610** | Margarita Valoiskoa<br>---<br>Maria Medici | • -<br>---<br>• **Luis II.a** (Luis XIII.a Frantziakoa)<br>• Elisabet<br>• Kristina Maria<br>• Nikolas Henrike<br>• Gaston<br>• Henriketa<br>---<br>• sasikoak | **Enrique III** | **Henri III** | **Henry III** |
| **42** | **Luis II.a** | (1601-1643)<br>**1610-1643** | Ana Austriakoa | • **Luis III.a** (Luis XIV.a Frantziakoa)<br>• Filipe | **Luis II** | **Louis II** | **Louis II** |
